

ITZAIN ▶ IKER ZALDUA

## Barrenetik



**B**arren barrendik irten ziren Ostegun iluntzean hitzak. Modu ezberdinak erabili zituzten hitz hauek Ordiziako Barrenan osteratxo burutzeko. Kantuan irten ziren batzuk, biolontxoan beste batzuk, iruditzen ere bidaiatu zuten, bertsoan ere aterata ziren apur batzuk, eta oinez gehienak.

Denetik esan zuten hitzok, ezkur bila ibiliz umeen oihuak entzuten direla, eta oihuak txuleta errearen ke artean ezkutatzen direla esaterako. Matxinsaltoak oinutsik ibiltzen direla, trikua, muxarra, sagua, satorra, tximeleta, ipurtargiak eta igelak bilduta daudela lepoa moztutako enborre-

an. Joanes artzainak Oñati aldetik zerbait entzun duela eta txanogorritxori amonaren etxerako bidea ahaztu zaiola.

Heriotza baten berri eman digute hitzok, eta odol asko isuriko dela, odol urdina, eta haurrak bertan bainatuko direla eta mutiko bat etxean dagoela txikitako argazkiei so eta negar egiten duela etorkizunari begira. Lizarrustiko aterpetxean zegoen koadroko artzainak txakurra galdu duela, eta horregatik begiratzen diola hainbestetan koadroari eta haiku bat idatzi zuela Artzaina, makila eta ardi-txakurra egonean. Azti, aiduru, ernai zioena.

Moratoriaren aitonaren istorioak kontatu dizkigute hitz hauek, erromerietan ibiltzen zela eta ez zela enteratu ere egin Lemoizko zentral nuklearra egin zutela, amaituta ikusi zuen arte. Bizarra mozteko atxurrek sekulako eboluzioa izan dutela denbora guztian zehar, xafra batekin hasi zirela eta konturatzerako laugarrena gainean genuela.

Eta badela leku bat jendearen algara ikusteko, adarretatik eskegita egoteko eta lagunnen malkoak xukatzeke. Leku horretan aulkiak daudela eta sitsak hartu dituela bertan dauden pintadak eta sitsaduren alboan goroldioak koloreztatuko bankua somatu daitekeela eta bertan zerbait dagoela idatzita AHTrik ez, edo horrelako zerbait. Leku polita dela, eta akaso Goierri-tarrako foto zaharrea aterako dela noiz-bait, Monopolytik leku hori ez badute azkar kentzen.

Gauza asko esan dizkigute ordu bete eskasean, soinketako irakaslearena ere kontatu dute, ikasleak paseatzera bidaltzen zituela eta bera egunkaria irakurtzen gertzen zela bitartean eta ikasleak enbor moztu bat ikusi zutela eta animalia mordo bat zegoela han bilduta eta enborrean pintada bat zegoela satorrak idatzia. Oihana gurea da jartzen zuela eta eztabaidatzen ari zirela eta gero txanogorritxori amonaren etxeraino lagunduko ziotela.

GUTUN@K ▶

## Txindoki magazine eta Abaliñe.com

Ederra izan da, aske sentitu naizelako batez ere. Zutabegile bezala aske sentitu naiz emakume jipoituen egoera salatzeke, udaberriari irribarra biluzteke, AHTren aurrean eseri eta bere ibilia oztopatzeko, presoan ikasteko eskubidea aldarrikatzeko, martxoaren 11an negarrari ahotsa jartzeko, saharar herriarekin bat egiteke... aske sentitu naiz isiltasuna oihukatzeke. Gai sozial, politiko eta ekologikoak euskaraz jorratzen saiatu naiz, eta lortu dut neurri handi batean, asko baitira inguratu eta nire idatzien inguruan solasean aritu zaizkidanak. Bai, ederra izan da.

Politika izan da, irakurle gisa aske sentitu naizelako batez ere. Mezkitari esker berdeago zaizkit belardiak, maitagarriago tximeletak. Eta Gorkaren ironia? Ahots irmoz egin ditu salaketak, baina, umorez. Seriotasunak ere badaki algara eragiten. Eta Axeriarren zorrotzasuna, literatur txokoko hitz-jolasak, sexu pintzeladak, begi kritikoa... Bai, ezkutuko aurpegiaren ahotsa ere izan da. Anitza. Aberatsa. Bai, polita izan da.

Baina, arrainari ur ontzia betetzen ez zaionean... Bai, hedabide bat ito dute. Hainbeste aldarrikatzen dugun adierazpen askatasunari guk geuk zigilatu dizkiogu ezpainak. Ez, ez da Guardia Zibilik etorri ate joka; ez, ez da epailerik inguratu, baina, itotzeko modu asko daude eta hemen diruarena erabili dute. Euskara hutsean argitaratzen ez zelako; kontuan hartu gabe aldiakari honekin, euskal hedabideak iristen ez diren txoko askotara iritsi dela euskara. Ez, ez naiz erdal guneetaz soilik ari.

Politika honekin egiten al da euskararen alde? Euskararen alde ematen den diru guztiak lortzen al du euskara piztu, indartu eta zabaltzea? Nire begi eta belarriek hitz egingo balute... Mozorroak ihauterietarako!

Bai, ederra izan da. Idazle eta irakurle bezala aske sentitu naizelako batez ere. Eta Aberats. Eta anitz. Txindoki Magazine eta Abaliñe.com-ek askatasun bideetan egin baitituzte komunikazio ibiliak. Eta ez dut uste komunikabide askok esan dezaketekin salaketa honetara batu diren herritar guztiak.

GUTUN@K ▶

## Horrela ez, alkate jauna

Legorretan oraintxe onartu dira isilpean arau subsidiario guztiak eta, auzotarrekin hitzegun gabe onartu ere, eta gauza jakina da arau horiek kalte nabarmena egiten dietela auzotarrei.

Kaltetuetako bat naizenez, jarduera bide hori salatu eta gaitzetsi nahi dut, izan ere, hortxe dugu aurreko Udalarren jokabidea: orduko agintariek berriro aztertu behar izan zituzten aipatutako arauak eta horretarako kalte guztiak iritzia eskatu zien, arauen ezarpenak eragin zitzaizkeen kalteak ahalik eta txikiak izan zitezien.

Itsasondon bi urteko epean herritarrekin hitzegin behar dute arau berriak kaltetu guztiak aztertuz, demokratikoki erabakitzeke. Jokabide hau askoz ere DEMOKRATIKOAGOA eta PARTEHARTZAILEAGOA iruditzen zait, eta begi-bistakoa da hementxe alkate jaunak erabili duen jokabidea guztiz bestelakoa dela; izan ere, hementxe jokabidea BORTXAZ ezarritakoa eta DIKTATORIALA izan da, eta alkate jaunak esan ere esan du "ez dit eskuak dardar egingo desjabetzea sinatu behar baldin badut".

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet bere sinaduraren salaketa honetara batu diren herritar guztiak.

GLORIA DORRONSORO (ETA 136 SINADURA GEHIAGO) ▶ LEGORRETA

ASTEKO IRUDIA ▶



MAIDER DEL OLMO



## Oianguri buruzko lanak Goierriko Kastarekin

**Erredakzioa** ▶ Goierriko Kasta osatzen duten eskualdeko hemezortzi idazleek Oianguri buruzko errezitaldia eskaini zuten herenegun Ordiziako Barrena etxean. Oianguri Publikoa eta Bizirik plataformaren eskaerari erantzunez bildu ziren guztiak. Oianguri gaia oinarri hartuta idazle bakoitzak barneko gogoetak kanporatu eta lanak ira-

kurri zituzten Barrenan bildutakoaren aurrean. Irakurraldiaz gain, liburuxka bat ere kaleratu dute lan hauekin. 20 orrialdeko aldizkaria da eta plataformaren web orrian ere zintzilikatu dute: [www.oiangubizirik.com](http://www.oiangubizirik.com). Honetaz gain, eskualdeko herri desberdinetako liburutegi, liburutenda eta KZguneetan ere lortu daiteke. M.O.

IRATI GOIKOETXA ▶ BEASAIN